# 4 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA / ADMINISTRACION DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA 4

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

*2008ko abenduaren 9ko 77/08 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko laguntza arauak ezartzen dituena.*

Europako Kontseiluaren 1.275/1999 zk. Arautegia, Nekazaritza Bermatu eta Bideratzeko Europako Fondoak (NBBEF) ematen dituen landa garapenerako laguntzei buruzkoa, errotik aldatu da 2003ko irailaren 29ko Europako Kontseiluaren 1.783/2003 Araudia eta berau betearazteko Europako Batzordearen 817/2004 Araudia indarrean sartu zirenetik.

Europako Kontseiluaren 2005eko irailaren 20ko 1.698/2005 Araudiak, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Fondoak (LGENF) ematen dituen landa garapeneko laguntzei buruzkoak, LGENF fondoaren bidez finantzatutako landa garapeneko Batasuneko laguntzak arautzen dituzten arau orokorrak ezartzen ditu, landa garapenerako lehentasunak eta neurriak ezarriz. Horien artean daude basogintza sektorean lehiakortasuna bultzatzeko laguntzak eta baso lurren erabilera iraunkorra bultzatzeko neurriak.

1.698/2005 Araudiak azalpen zatian adierazten duenez, basogintza landa garapenaren zati da eta, bestetik, lursailen erabilera iraunkorrerako laguntzek barne hartu behar dituzte basoen kudeaketa iraunkorra eta beren zeregin multifuntzionala. Basoek onura ugari sortzen dituzte, batetik, produktu berriztagarriak eta ingurumena errespetatzen dutenak egiteko beharrezko lehengaiak eskaintzen dizkigute eta, bestetik zeregin garrantzitsua betetzen dute ongizate ekonomikoari, dibertsitate biologikoari, karbonoaren ziklo osoari, oreka hidrologikoari, higaduraren kontrolari eta hondamendi naturalen prebentzioari dagokionez; horiez gain gizarte eta jolas funtzioa ere betetzen dute.

Aurreko 2000-2006 aldian bezala, abian jarriko diren neurriak goian aipatutako Europako araudiek xedatutakoaren arabera planifikatu behar dira, eta horretarako plangintza hori jasotzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko 2007/2013 Plana prestatu da eta Europako Batzordeak 2008ko otsailaren 15eko Erabakiaren bidez onartu du. Araudi berrian neurriak ardatzetan banatuta daude (1. ardatza: Nekazaritza eta basogintza sektorearen produktibitatea handitzea; 2. ardatza: Ingurumena eta landa ingurunea hobetzea; 3. ardatza: Landa aldeetako bizi kalitatea eta landa ekonomiaren dibertsifikazioa; eta 4. ardatza: Leader ikuspegia).

Bestalde, 2006ko urriaren 20ko 7/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Mendienak, mendien funtzio ekonomikoak, ekologikoak eta sozialak, modu iraunkorrean, mantendu eta garatzearren hainbat inbertsio, ekintza edo lan egiteko Foru Aldundiak eman ditzakeen laguntzen esparrua arautzean, 96.3 artikuluan ezartzen du arau bidez zehaztuko direla onuradunek bete beharreko baldintzak, mendien ezaugarriak, eta abar.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzak arautzen dituen 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak eta horren araudia onartzen duen 2008ko apirilaren 29ko 24/08 Foru Dekretuak berrikuntza ugari egin dituzte diru laguntzen inguruko araudian, Gipuzkoako foru sektore publikoari jarduera horren inguruko esparru juridiko osoa eskainiz.

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

*DECRETO FORAL 77/2008, de 9 de diciembre, por el que se establece el régimen de ayudas para el mantenimiento, mejora y desarrollo de los bosques de Gipuzkoa.*

El Reglamento (CE) n.º 1.257/1999, del Consejo, sobre ayudas al desarrollo rural a cargo del Fondo Europeo de Orientación y Garantía Agrícola ha sido objeto de una profunda modificación motivada por la entrada en vigor del Reglamento (CE) n.º 1.783/2003 del Consejo, de 29 de setiembre de 2003, así como por el Reglamento (CE) n.º 817/2004 de la Comisión, que establece las disposiciones de su aplicación.

El Reglamento (CE) 1698/2005 del Consejo, de 20 de setiembre de 2005, relativo a la ayuda al desarrollo rural a través del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER) establece las normas generales que regulan la ayuda comunitaria al desarrollo rural, financiada por el FEADER, definiendo las prioridades y medidas de desarrollo rural, entre las que se incluyen diversas medidas de ayuda en favor de la competitividad del sector forestal así como medidas destinadas a la utilización sostenible de las tierras forestales.

Según recoge en su parte expositiva dicho Reglamento (CE) 1.698/2005, la silvicultura forma parte integrante del desarrollo rural y por otro lado, la ayuda a la utilización sostenible de las tierras debe abarcar la gestión sostenible de los bosques y su papel multifuncional. Los bosques generan múltiples beneficios, ya que proporcionan la materia prima necesaria para la elaboración de productos renovables y respetuosos del medio ambiente y desempeñan una función importante en materia de bienestar económico, diversidad biológica, ciclo global del carbono, equilibrio hidrológico, control de la erosión y prevención de catástrofes naturales y desempeñan además una función social y recreativa.

Del mismo modo que en el anterior período 2000-2006, las medidas a poner en marcha han de ser objeto de planificación según lo establecen los reglamentos comunitarios anteriormente citados y a estos efectos se ha elaborado el Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2007-2013, en el que se recoge dicha planificación y que ha sido aprobado por la Comisión Europea mediante Decisión de 15 de febrero de 2008. En la nueva reglamentación se efectúa una división de las medidas por ejes (eje 1: Aumento de la productividad del sector agrícola y forestal; eje 2: Mejora del medio ambiente y del entorno rural; eje 3: Calidad de vida en las zonas rurales y diversificación de la economía rural; y eje 4: Enfoque Leader).

Por su parte, la Norma Foral 7/2006, de 20 de octubre de 2006, de Montes de Gipuzkoa, al regular el marco en el que la Diputación Foral podrá conceder ayudas para diversas inversiones, acciones o labores, tendentes a contribuir, de una manera sostenible, al mantenimiento y desarrollo de las funciones económicas, ecológicas y sociales de los montes, en su artículo 96.3 establece que los requisitos que deben cumplir los beneficiarios, características de los montes, etc. se determinarán reglamentariamente.

Mediante la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y el Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, por el que se ha aprobado el Reglamento de dicha Norma Foral, se han introducido importantes novedades en la regulación de la actividad subvencional, dotando al sector público foral guipuzcoano de un marco jurídico completo ordenador de dicha actividad.

Aurreko guztia kontuan hartuta, behar-beharrezkoa da foru dekretu berri bat onartzea eta bertan jasotzea, batetik, basogintzarekin lotura zuzenagoa duten neurriak, horien kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiarena izanik, eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Fondoaren (LGENF) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean finantzatutakoak, eta bestetik, estatuko laguntzak deitutakoak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetatik soilik finantzatzen direnak.

LGENF fondoaren bitartez finantzatutako jarduera lerroak sei ataletan egituratuta daude II. tituluan: Basozainek aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzak, basoen balio ekonomikoa areagotzeko laguntzak, basogintzaren bilakaera eta egokitzapenarekin zerikusia duten azpiegiturak hobetu eta garatzeko laguntzak, nekazaritzako lurrak lehenengo aldiz baso bihurtzeko laguntzak, baso ingurunearen aldeko laguntzak, baso potentziala berreskuratzeko eta prebentzio neurriak ezartzeko laguntzak, eta produkziokoak ez diren inbertsioetarako laguntzak.

Gerta liteke 1.698/2005 zenbakiko arautegian ezarritako gehieneko diru laguntzak behar adinakoak ez izatea, horrenbestez Foru Dekretuari III. titulua erantsi zaio, LGENF fondoaren partaidetzako laguntzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzekin osatzeko. Era berean, III. titulu horretan sartzen dira nekazaritzakoak ez diren lurrak baso bihurtzeko laguntzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Planean jasota ez daudenak.

Horiek horrela, Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATZEN DUT

## I. TITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Xedea.*

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko laguntza arauak ezartzea da foru dekretu honen xedea eta eginbide horretarako lege-arau hauek erabakitakoan oinarritzen da: Europar Batasuneko 2005eko irailaren 20ko Kontseiluaren 1.698/2005 Arautegia, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraukorreko 2007-2013 Plana.

2. Aurreko puntuan aipatzen diren laguntza arauak bi ataletan banatzen dira foru dekretu honetan, laguntza neurrien finantzaketan Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Fondoa (LGENF) partaide den edo finantzaketa hori soil-soilik Gipuzkoako Foru Aldundiko aurrekontuetatik datorren kontuan hartuta.

*2. artikulua. Onuradunak.*

Laguntza jasotzeko, basoak edo baso azalerak pertsona fisiko edo juridikoenak izango dira eta pertsona horiek bete beharko dituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzen 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan onuradun izaera eskuratzeko aurreikusten dituen baldintza orokorrak eta foru dekretu honetan diru laguntza lerro bakoitzerako eskatzen diren baldintza espezifikoak; horrez gain, onuradunak Nekazaritza Ustialekuen Erregistroan izena emanda egongo dira.

Todo lo anterior determina la necesidad de aprobar un nuevo Decreto Foral en el que se recojan aquellas medidas que tienen una relación más directa con la silvicultura y cuya gestión es competencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa, cofinanciadas por el Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER) y la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como las denominadas ayudas estatales, cuya financiación se produce exclusivamente con cargo a los presupuestos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Las líneas de actuación cofinanciadas por el FEADER, se estructuran en seis Secciones dentro del Título II: Ayudas para la utilización de servicios de asesoramiento por parte de los silvicultores, ayudas para el aumento del valor económico de los bosques, ayudas para la mejora y desarrollo de las infraestructuras relacionadas con la evolución y la adaptación de la silvicultura, ayudas a la primera forestación de tierras agrícolas, ayudas en favor del medio forestal, ayudas a la recuperación del potencial forestal e implantación de medidas preventivas y ayudas a inversiones no productivas.

La circunstancia de que el límite máximo de ayudas previsto en el Reglamento n.º 1.698/2005, resulte en determinados casos insuficiente, hace necesario regular en el Título III del presente Decreto Foral las ayudas que tienen como fin complementar las compensaciones cofinanciadas por el FEADER con una cantidad adicional a cargo exclusivamente de los presupuestos de la Diputación Foral de Gipuzkoa. También se incluyen en este Título III las ayudas destinadas a la forestación de tierras no agrícolas, no incluidas en el Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por todo ello, a propuesta del Diputado Foral del Departamento de Desarrollo del Medio Rural, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

## TITULO I

## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto.*

1. El presente Decreto Foral tiene por objeto establecer, para el Territorio Histórico de Gipuzkoa, el régimen de ayudas para el mantenimiento, mejora y desarrollo de los bosques, de conformidad con lo dispuesto en el Reglamento (CE) n.º 1.698/2005 del Consejo, de 20 de setiembre, y en el Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2007-2013.

2. El régimen de ayudas al que hace referencia el apartado anterior, se estructura en el presente Decreto Foral en dos apartados según se trate de medidas cofinanciadas por el Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER), o ayudas a cargo exclusivamente de los presupuestos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Artículo 2. Personas beneficiarias.*

Las ayudas se concederán sólo para los bosques y superficies forestales cuyos titulares sean personas físicas o jurídicas que cumplan tanto los requisitos generales para obtener la condición de persona beneficiaria contemplados en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como los requisitos específicos recogidos en el presente Decreto Foral para cada una de las líneas de ayuda de que se trate;además, deberán estar inscritas en el Registro de Explotaciones Agrarias.

*3. artikulua. Laguntzen finantzaketa.*

1. 1. artikuluan aurreikusitako laguntzetarako diru baliabideak Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuaren aurrekontuetatik eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Fondotik (LGENF) aterako dira, Europako Batzordeak onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko 2007-2013 Planean agertzen den finantzaketa portzentajeen arabera.

2. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak finantzaketa osagarria egin ahal izango du foru dekretu honetako lehenengo artikuluan jasotako laguntzetarako diru baliabideak handitzearren.

3. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Fondoari (LGENF) dagokion zatia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ordainduko du bere erakunde ordaintzailearen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzailea eratzeko 2006ko urriaren 3ko 194/06 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

*4. artikulua. Prozedura agindu eta izapidetzeko eskumena duen organoa.*

Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzua da prozedura izapidetuko duen organoa. Hala, behar besteko jarduketak egingo ditu ofizioz, diru laguntza emateko proposamena egiteko behar diren datuak erabaki, ezagutu eta egiaztatzearren.

*5. artikulua. Laguntza emateko ebazpena.*

1. Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuko foru diputatuak ebatziko du prozedura.

2. Diru laguntzak emateko prozedurak gehienez ere sei hilabeteko epean ebatzi eta jakinarazi behar dira, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik aurrera. Gehienezko epe hori berariazko ebazpena jakinarazi edo argitaratu gabe iragaten bada, eskaera ez zaiela onartu ulertu behar dute interesatuek.

*6. artikulua. Onuradunen betebeharrak.*

Foru dekretu honetan araututako diru laguntzen onuradunek, bertan berariaz zehaztutako betebeharrez gain, kasu bakoitzari ezarri beharreko Europako araudietatik eratorritako gainerako betebeharrak bete beharko dituzte, baita Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak ezarritakoak eta aplikagarri direnak ere.

*7. artikulua. Ordainketa.*

1. Laguntzak ordaintzeko, laguntza arrazoitu duen inbertsioa egin behar da, eta gauzatutako inbertsioen ziurtagiriak eta zurigarriak jasotakoan eta dagokion araudia betez egin direla egiaztatu ondoren, ordainketa baimena emango da eta onuradunari eman beharreko laguntzaren behin betiko zenbatekoa zehaztuko da.

2. Inbertsioen banakako kostua modulatu egingo da baldin eta egin beharreko lanen tipologiak horretarako bide ematen badu.

3. Inbertsioen balioa modulatu gabe dagoenean, gauzatutako inbertsioak zuritzerakoan gutxienez onartutako inbertsio lagungarria zuritu beharko da, alabaina, ez da zuritu beharrik izango fondo publikoen bitartez finantzatu ez den soberako gastua.

*Artículo 3. Financiación de las ayudas.*

1. Los recursos económicos destinados a las ayudas previstas en el artículo 1 procederán de los créditos presupuestarios del Departamento de Desarrollo del Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER), de conformidad con los porcentajes de cofinanciación que figuran el Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2007-2013, aprobado por la Comisión Europea.

2. Asimismo, el Departamento de Desarrollo del Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá aportar financiación complementaria destinada a aumentar los recursos económicos para las ayudas recogidas en el artículo primero del presente Decreto Foral.

3. La parte de las ayudas procedente del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER) será satisfecha por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco por medio de su Organismo Pagador, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 194/2006, de 3 de octubre, por el que se constituye el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 4. Órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

El órgano instructor del procedimiento será el Servicio de Montes y Gestión de Hábitats, que realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de concesión de la subvención.

*Artículo 5. Resolución de concesión.*

1. La resolución del procedimiento corresponderá al Diputado o Diputada Foral del Departamento de Desarrollo del Medio Rural.

2. El plazo máximo que se establece para resolver y notificar la resolución de los procedimientos de concesión de las ayudas es de seis meses contados a partir del día siguiente al de la presentación de la solicitud. El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado o publicado resolución expresa, legitima a las personas interesadas para entender desestimada la solicitud.

*Artículo 6. Obligaciones de las personas beneficiarias.*

Las personas beneficiarias de las subvenciones reguladas en el presente Decreto Foral, además de las obligaciones expresamente contempladas en el mismo, deberán cumplir las demás obligaciones derivadas de las normas comunitarias de aplicación a cada caso, así como, las establecidas en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa que resulten de aplicación.

*Artículo 7. Pago.*

1. El pago de las subvención estará condicionado a la realización de la inversión que fundamente la ayuda, y una vez recibidas las certificaciones y justificantes de pago relativos a las inversiones ejecutadas y verificado que éstas se han realizado de acuerdo con la normativa correspondiente, procederá la autorización del pago y la determinación del importe definitivo de las ayudas a pagar a la persona beneficiaria.

2. El coste unitario de las inversiones será objeto de modulación cuando la tipología de los trabajos a realizar permita dicha modulación.

3. Cuando el valor de las inversiones no se encuentre modulado, la justificación del importe de las inversiones ejecutadas alcanzará como mínimo el importe de la inversión auxiliable aprobada, sin que sea extensible esta obligación al exceso de gasto no financiado por los fondos públicos.

4. Frogagiritzat joko dira hornitzaileek eta kontratistek emandako fakturak eta ordainketa ziurtagiriak, baldin eta indarrean dagoen legedian ezarritako baliozkotasun baldintzak betetzen badituzte. Jatorrizko fakturak bakarrik onartuko dira, edo bestela, fotokopia konpultsatuak.

*8. artikulua. Ebazpena aldatzea.*

Laguntzak eman eta ordaintzeko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatzeak, betiere laguntzaren xedea betetzat jotzen bada eta, beste laguntza batzuk jasotzeagatik diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa gainditzeak, diru laguntza emateari buruzko ebazpena aldaraz lezake. Horretarako, eskumena duen kudeaketa organoak dagokion aldaketa ebazpena emango du eta onartutako diru laguntzen zenbatekoak doituko ditu.

*9. artikulua. Kontrolak, ez-betetzeak, zigorrak eta itzulketak.*

1. Aplikagarri izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak ezarritako itzulketen eta urraketen eta zigor administratiboen araubidea, baita Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearen 2007ko martxoaren 27ko 4/07 Foru Arauak araututako finantza kontroleko prozedurak ere, baldin eta foru dekretu honetan araututako laguntzei aplikagarri zaien Europako araudian xedatutakoarekin kontraesanean ez badaude.

2. Euskal Autonomia Erkideko Landa Garapen Iraunkorreko 2007-2013 Planean jasotako eta Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak kudeatutako landa garapeneko laguntza neurriei ezarri beharreko baldintzak eta kontrol prozedurak 2006ko abenduaren 7ko Europako Batzordearen 1.975/06 Araudian xedatutakoaren arabera gauzatuko dira.

3. Diru-laguntza eskaerak eta ordainketa kontrolatu egingo dira laguntzak emateko ezarritako baldintzen konplimenduaren benetako egiaztapena bermatzearren.

4. Europako araudiak eta estatuko, autonomia erkidegoko eta lurraldeko legediak ezarritako onarpen irizpideak, nahiz landa garapeneko programan ezarritakoak egiaztatzeko, kontrol administratiboak eta lekuan bertan burututako kontrolak egingo dira. Baldintzen konplimendua, berriz, lekuan bertan egingo diren kontrolen bitartez egiaztatuko da eta, behar denean, kontrol administratiboen bidez.

5. Ez-betetzeren bat antzemango balitz, aipatutako 1.975/2006 Araudian xedatutako murrizpenak eta/edo bazterketak ezarriko dira, baita aplikagarri izan daitekeen gainerako arauditik eratorritako gainerakoak ere.

6. Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak plan bat egingo du, zeinaren oinarrizko helburua izango baita ikuskapen eta kontroleko sistema egoki bat antolatzea foru dekretu honetan eta horren garapen arauetan jarritako baldintzak onuradunek betetzen dituztela egiaztatzeko.

*10. artikulua. Laguntzak murriztea eta kanpo uztea.*

1. Hartutako konpromisoen urraketaren bat antzemanez gero, konpromiso horiek ez betetzeagatik, aitortutako eta egiaztatutako azalerak bat ez etortzeagatik, baso erabilera aldatzeagatik, edo dena delakoagatik, bidezko iritzitako murrizketak edo bazterketak aplikatuko dira.

2. Kasu bakoitzean eta urraketaren larritasuna kontuan hartuta, zigor mailakatuak ezarriko dira, hala nola jasotako laguntza murriztea, jasotako zenbateko guztiak gehi berandutza interesak itzultzea, eta programatik kanpo uztea.

4. Se considerarán como justificantes las facturas y comprobantes de pago emitidos por los proveedores y contratistas, que cumplan con los requisitos de validez establecidos en la legislación vigente. Sólo se aceptarán facturas originales o en su defecto, fotocopias compulsadas.

*Artículo 8. Modificación de la resolución.*

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión y pago de las ayudas, siempre que se entienda cumplida el objeto de esta y, en su caso, la superación del límite máximo de la cuantía subvencionable por obtención concurrente de otras subvenciones, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de las subvenciones. A estos efectos, por el órgano gestor competente se dictará la oportuna resolución de modificación en la que se ajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

*Artículo 9. Controles, incumplimientos, sanciones y reintegros.*

1. Será de aplicación el régimen de reintegros e infracciones y sanciones administrativas establecido en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como los procedimientos de control financiero regulados en la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en todo aquello que no contradiga lo dispuesto en la normativa comunitaria de aplicación a las ayudas reguladas en el presente Decreto Foral.

2. Los procedimientos de control y la condicionalidad a aplicar a las medidas de ayuda al desarrollo rural incluidas en el Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2007-2013 y gestionadas por el Departamento de Desarrollo del Medio Rural se llevaran a cabo en base a lo dispuesto en el Reglamento 1.975/2006 de la Comisión de 7 de diciembre.

3. Las solicitudes de ayuda, así como el pago se controlarán de forma que se garantice la comprobación real del cumplimiento de las condiciones establecidas para la concesión de la ayuda.

4. La comprobación de los criterios de admisibilidad establecidos por la normativa comunitaria, legislación estatal, autonómica y foral, así como los establecidos en el programa de desarrollo rural, consistirá en controles administrativos y sobre el terreno. En cuanto al cumplimiento de la condicionalidad se verificará mediante controles sobre el terreno y, cuando proceda, mediante controles administrativos.

5. En caso de que se detecten incumplimientos, se procederá a aplicar las reducciones y/o exclusiones establecidas en el referido Reglamento 1.975/2006, así como aquellas otras derivadas del resto de la normativa que resulte de aplicación.

6. El Departamento de Desarrollo del Medio Rural elaborará un plan que tendrá como principal objetivo organizar un sistema adecuado de inspección y control, a fin de verificar el cumplimiento por los beneficiarios de las condiciones establecidas en el presente Decreto Foral y en sus normas de desarrollo.

*Artículo 10. Reducciones de las ayudas y exclusiones.*

1. Cuando se detecte alguna infracción de los compromisos suscritos, bien sea por incumplimiento de los mismos, por diferencia entre superficies declaradas y comprobadas, por cambio de uso forestal, etc., se aplicarán las oportunas reducciones o exclusiones.

2. En cada caso y en función de la gravedad de la infracción, se aplicaran penalizaciones progresivas que abarcan desde la reducción de la ayuda recibida, a la devolución de la totalidad de las cuantías percibidas más los intereses de demora, y hasta la exclusión del programa.

3. Kasu guztietan indarrean dagoen interes tasa ezarriko da.

4. Diru laguntza itzultzeko betebeharra, okerreko ordainketen ondoriozkoa bada, ez da aplikatuko baldin eta eskumena duen agintaritzaren erruz egin bada ordainketa eta onuradunak fede onez jokatu badu.

5. Onuradunak, edozein bide erabiliz, kontrol lana oztopatzen badu, konpromisoa baliogabetu egingo da eta jasotako zenbatekoak gehi legez dagozkion interesak itzuli beharko ditu, zuzenbidean ezar dakizkiokeen bestelako erantzukizunak eragotzi gabe.

*11. artikulua. Konpromisoetatik salbuesteko halabeharrezko arrazoiak.*

1. Laguntzak jasotzeko hartutako konpromisoak ez betetzea justifikatuko duten halabeharrezko kasuak edo aparteko gorabeherak izango dira honako hauek:

a) Onuraduna hiltzea.

b) Onuradunari iraupen luzeko lanbide ezgaitasuna aitortzea.

c) Ustiapenaren zati handi bat desjabetzea, baldin eta desjabetze hori ezin bazitekeen aurreikusi konpromisoa izenpetu zenean.

d) Ustialekuaren baso azalerari larriki eragiten dioten ezbehar naturalak gertatzea.

2. Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuari idatziz eman beharko zaio gorabehera horien berri, beharrezko frogekin batera, onuraduna hori egiteko egoeran dagoenetik hasi eta hamar laneguneko epearen barruan.

*12. artikulua. Laguntzak emateko prozedura eta urteroko deialdia.*

1. Diru laguntzak lehiarik gabeko prozeduraren bidez emango dira.

2. Urtero deialdi bat egingo da eta bertan zehaztuko dira ekitaldi horretan diru laguntzetarako guztira xedatuko den dirua, inbertsioak baloratzeko moduluak eta eskaerak aurkezteko epeak eta baldintzak.

*13. artikulua. Diru laguntzen zenbatekoa eta gehieneko kopurua.*

1. Foru Dekretu honetan laguntza lerro bakoitzerako ezartzen diren gehieneko zenbatekoek %10eko igoera izan dezakete, espedientean aurreikusitako inbertsio osoari dagokionez, ondorengo kasu hauetan:

a) Nekazaritzako ustiategiei eta landa garapenari mesede egiteko, baso inbertsioak egin diren mendiko titularraren lehen jarduera nekazaritzakoa baldin bada.

b) Utzita dauden mendi pribatuak berreskuratu eta zaintza bultzatzearren, ondorengo gorabeheretako batzuetan sartuta egonez gero:

— Ondare eskualdaketaren bat egin den mendien kasuan:

Azken bost urteetan ez bada inolako baso berritzerik egin.

— Edozein baso lurretan:

2006ko urriaren 20ko 7/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Mendienak, 40. artikuluan aurreikusitako helburuarekin sortutako baso sailen elkargo edo elkarteren bateko partaide izanez gero.

3. El tipo de interés aplicable en todos los casos, será el legal del dinero.

4. La obligación de reintegro de la ayuda, en caso de pago indebido, no se aplicará si el pago hubiese sido fruto de un error de la propia autoridad competente y la persona beneficiaria por su parte hubiera actuado de buena fe.

5. En caso de que la persona beneficiaria obstaculice por cualquier medio la labor de control, se procederá a la anulación del compromiso y al reintegro de las cantidades percibidas más el interés legal que resulte, sin perjuicio de otras responsabilidades que en derecho procedan.

*Artículo 11. Causas de fuerza mayor eximentes de los compromisos.*

1. Se reconocerá la existencia de causas de fuerza mayor o de circunstancias excepcionales justificativos del no cumplimiento de los compromisos adquiridos para la percepción de las ayudas en los siguientes casos:

a) Fallecimiento de la persona beneficiaria.

b) Incapacidad profesional de larga duración de la persona beneficiaria.

c) Expropiación de una parte importante de la explotación, si esta expropiación no era previsible el día en que se suscribió el compromiso.

d) Calamidades naturales graves que afecten seriamente a la superficie forestal de la explotación.

2. Dichas circunstancias deberán notificarse por escrito al Departamento de Desarrollo del Medio Rural, aportando las pruebas pertinentes, en el plazo de diez días hábiles a partir del momento en que la persona beneficiaria se halle en situación de hacerlo.

*Artículo 12. Procedimiento de concesión y convocatoria anual.*

1. El procedimiento de concesión de las ayudas será el de concurrencia no competitiva.

2. Mediante convocatoria anual se establecerán el importe total destinado a las ayudas en el correspondiente ejercicio, los módulos para la valoración de las inversiones y los plazos y condiciones de presentación de las solicitudes.

*Artículo 13. Importe y límite máximo de las ayudas.*

1. Las cuantías máximas establecidas en el presente Decreto Foral para cada línea de ayudas podrán incrementarse hasta en un 10%, referido a la totalidad de la inversión que se contemple en el expediente, en los siguientes casos:

a) Con el objeto de favorecer las explotaciones agrarias y el desarrollo rural, cuando el titular del monte que realice las inversiones forestales ejerza la actividad agraria a título principal.

b) Con el objeto de fomentar la recuperación y el mantenimiento de los montes privados abandonados, cuando se den algunas de las siguientes circunstancias:

— En montes en los que haya mediado una transmisión patrimonial:

Cuando en los últimos cinco años, no se hubiera llevado a cabo repoblación forestal alguna.

— En cualquier clase de terrenos forestales:

Cuando formen parte de las Agrupaciones o Sociedades de Fincas Forestales, constituidas con el fin previsto en el artículo 40 de la Norma Foral 7/2006, de 20 de octubre, de Montes de Gipuzkoa.

— Utzikeriaren eraginez berez basotu diren mendietan, aldez aurretik dagokion mozketa egiteko baimena eskuratu behar da.

2. Foru dekretu honetan ezarritako diru laguntzek inoiz ez dute gaindituko ez inbertsioaren %100a ez diruz lagundutako inbertsioen guztizkoa.

*14. artikulua. Inbertsio lagungarriak.*

1. Inbertsioak, lagungarritzat jotzeko, laguntza lerro bakoitzean aurreikusitako baldintza bereziez gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuta eta Nekazaritza Ustialekuen Erregistroan izena emanda dauden finketan gauzatu beharko dira.

2. Diruz lagundutako jarduerek naturagune babestuetan ezarritako arauak eta espezie mehatxatuei dagozkien kudeaketa planetan xedatutakoak bete beharko dituzte.

3. BEZak, eta oro har edozein zergak edo tasak ez du diru laguntzarik jasoko.

*15. artikulua. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

1. Diru laguntza eskaerak inprimaki informatizatuan beteko dira eskatzaileei dagozkien Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan, inbertsioa egin aurretik, eta inprimakiarekin batera, laguntza lerro bakoitzean zehaztutako agiri teknikoez gain, urteko deialdian adierazitakoa aurkeztu beharko da.

2. Azaleran oinarritutako laguntzen kasuan, SIGPAC-en araberako lursailen kokapenaren planoa erantsi behar da, poligonoak eta lur zatiak identifikatuta, baita txostena eta obra ziurtagiria egiteko beharrezkoak diren datuak ere.

3. Eskaeran edo aurkeztutako dokumentazioan akats, gabezia edo zehazgabetasunen bat antzematen bada, eskatzaileari jakinaraziko zaio eta honek 10 eguneko epea izango du horiek zuzentzeko. Era berean, jakinarazi egingo zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 71. artikuluan xedatutakoa betez.

4. Eskaerak aurkezteko epea deialdi bakoitzean zehaztuko da.

*16. artikulua. Laguntzak justifikatzea.*

1. Hirugarrengoek egindako zerbitzu prestazioez edo produktuen erosketez osatutako inbertsioen edo jardueren kasuan, egindako inbertsioen egiaztagiri modura fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balioa duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak erabiliko dira.

2. Diru laguntza onartu zaiola jakinarazi ondoren, eskatzaileak urtebeteko epea izango du inbertsioak egin eta justifikatzeko. Epe hori amaitutakoan, ez bada egindako inbertsioaren egiaztagiririk aurkeztu, organo eskumendunak 15 eguneko epea emango dio onuradunari agiri horiek aurkez ditzan. Beste epe horretan ez bada eskatutako dokumentazioa aurkezten, diru laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

— En aquellos montes que debido al abandono se hayan repoblado de forma natural apreciablemente será preciso obtener previamente la autorización de corta pertinente.

2. En ningún caso podrán superar las subvenciones establecidas en este Decreto Foral el 100% de la inversión o de la suma de inversiones auxiliadas.

*Artículo 14. Inversiones auxiliables.*

1. Las inversiones, para poder tener el carácter de auxiliables, además de los requisitos específicos contemplados en cada línea de ayudas, deberán realizarse en fincas ubicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa y que se encuentren inscritas en el Registro de Explotaciones Agrarias.

2. Las actuaciones objeto de subvención deberán cumplir las regulaciones establecidas en los espacios naturales protegidos, así como lo dispuesto en los planes de gestión de especies amenazadas.

3. El IVA y en general cualquier impuesto, o tasa no serán subvencionables.

*Artículo 15. Forma y plazo de presentación de solicitudes.*

1. Las solicitudes de ayuda deberán formalizarse en impreso informatizado en las Oficinas Comarcales Agrarias correspondientes, previamente a la realización de la inversión, e irán acompañadas, además de la documentación técnica que en cada línea de ayuda se especifica, por la que se determine en la convocatoria anual.

2. En el caso de ayudas basadas en la superficie, deberá incluirse en la solicitud, el plano de situación de los terrenos según SIGPAC, identificando los polígonos y parcelas, así como los datos que en cada caso se requieran para elaborar el correspondiente informe y certificación de obra.

3. Si se advirtiera en la solicitud o la documentación presentada la existencia de algún defecto, carencia o inexactitud, se comunicará a la persona solicitante, y se le concederá un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación, indicándole que, transcurrido dicho plazo sin haber procedido a la subsanación, se le tendrá por desistida en su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4. El plazo de presentación de solicitudes se determinará en las correspondientes convocatorias.

*Artículo 16. Justificación de las ayudas.*

1. En los casos de inversiones y actuaciones constituidas por prestaciones de servicios efectuadas por terceros o adquisiciones de productos, como documentación acreditativa de las inversiones ejecutadas deberán presentarse facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico mercantil o con eficacia administrativa.

2. Una vez notificada la concesión de la subvención el solicitante dispondrá del plazo de un año para la realización y justificación de las inversiones. Transcurrido dicho plazo sin que se hubiera presentado la documentación justificativa de la realización de la inversión, el órgano competente requerirá a la persona beneficiaria para que en el plazo de 15 días aporte la misma. Transcurrido este nuevo plazo, la falta de presentación de la justificación lleva aparejada la pérdida del derecho de cobro de la subvención.

*17. artikulua. Argitalpena.*

LGENF fondoaren partaidetza duten laguntzen onuradunei buruzko informazioaren argitalpena egitean kontuan hartuko da 2005eko ekainaren 21eko Kontseiluaren 1290/2005 Erregelamendua, erkidegoko nekazaritza politikaren finantzaketari buruzkoa, eta 2008ko martxoaren 18ko Batzordearen 259/2008 Erregelamendua, NBEF eta LGENF fondoaren onuradunei buruzko informazioaren argitalpenari dagokionez Kontseiluaren 1290/2005 Erregelamenduaren aplikazio xedapenak ezartzen dituena. Halaber, autonomia erkidegoetako, estatuetako edo Europako auditoretza eta ikerketa erakundeek erabili ahal izango dituzte finantza interesak babestearren.

II. TITULUA

LGENF FONDOAREN PARTAIDETZA DUTEN LAGUNTZAK

*18.artikulua. Laguntzen helburua.*

LGENF fondoaren partaidetza duten laguntzen helburua izango da basoen eragin ekonomiko, ekologiko eta sozialak zaindu eta hobetzea.

*19. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak eta jarduerak.*

Ondorengo bi ataletan zehaztutako inbertsioak eta jarduerak lagungarriak izango dira:

Lehen atala. Basogintza sektorearen lehiakortasuna handitzea:

a) Basozainek aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzak.

b) Basoen balio ekonomikoa areagotzeko laguntzak.

c) Basogintzaren bilakaera eta egokitzapenarekin zerikusia duten azpiegiturak hobetu eta garatzeko laguntzak.

Bigarren atala. Ingurumena eta basoetako landa ingurunea hobetzea:

a) Nekazaritza lurrak lehenengo aldiz baso bihurtzeko laguntzak.

b) Baso ingurunearen aldeko laguntzak.

c) Baso potentziala berreskuratzeko eta prebentzio neurriak ezartzeko laguntzak.

d) Produkziokoak ez diren inbertsioetarako laguntzak.

LEHEN ATALA. Basogintza sektorearen lehiakortasuna handitzea: Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak eta jarduerak eta laguntzen gehieneko zenbatekoa

*20. artikulua. Basozainek aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzak.*

1. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Diruz lagundu ahal izango dira Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Teknikoak (BKIPT) Era berean, diruz lagundu ahal izango dira teknikoki justifikatzen diren aholkularitzako beste jarduera batzuk.

2. Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko planen idazketaren edo aholkularitzako beste jardueren kostuaren % 80, mendi pribatuen nahiz publikoen kasuan, eta onuradun bakoitzeko urteko muga 1.200 €-koa izango da.

*Artículo 17. Publicación.*

